



Elkargokide agurgarriak,

Igarotako 2015eko ekainaren 13an GHEE-CEESPVko Gobernu Batzordeko Hauteskundeetako Ezohiko Batzar Nagusia ospatu zen eta lehendik proposaturiko hautagai zerrenda aho batez onartua izan zen.

Hautagai aldia bukatu duen **Gobernu Batzordeak** 5 urtez lan eta lan aritu ondoren, euren jarritako interesa eta jasotako atxikimenduak, eskertzen dituzte. Plazerra izan da ikastaldi eta profesional hazkuntzako denboraldi hau zuekin partekatu izana. Eskertu nahi zaituztegu honaino bidelagun izanagatik eta testigua jasoko duten datozen Gobernu Batzordeko kideekin, ordezkoeekin ere horrela egiteagatik; horrela, eskuragarriago izango da hazteko erronka, profesioa eratzen jarraitzea, giza zuzentasunaren eskubidea defendatzen segitzeko, baita gizarte zerbitzu duinak ere aldarrikatzeko. Profesioarengatik egingo dugu lan, baina une honetatik aurrera beste elkarkide batzuk izango dira prozesuaren buruak, energia berriarekin eta egiteko modu berrieekin.

Gure partetik, **datorren Gobernu Batzordeak**, eskertzen dugu aurreko bi Gobernu Batzordeek gudan jarritako konfidantza eta laguntasunagatik, eta etorreraren prozesuan zehar iradokizunak zein baliagarriak ziren ideiak utzi dituzten kideak. Orain dela ia hamarkada bat hasitako prozesuan murgildu nahi gara eta honekin batera, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo irekia nahi dugu zeinean parte hartzea gonbidatzen dela, eta guztion artean profesio sendotuago izatera heltzeko aukera ematen duena.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



2016 Sevilla 21, 22 y 23 Abril

¡A MÁS EDUCACIÓN
SOCIAL
MÁS CIUDADANÍA!

Gizarte Hezkuntza VII. Kongresua Sevillan
2016ko apirilaren 21,22 eta 23an egingo da.

Haurtengo **CGCES Ohiko Batzar Nagusia** Iruñean ekaineko 6 eta 7an, asteburuan, egin zen.

Aurreko urteko memoria, aurtengo plana eta Kontseiluko informazio ekonomikoaz gain, Barneko Erregimenaren Araudia eta Kontseiluko Modeloa berraztertzeari ekin zioten, Elkargo berrien sormenari buruzko egoeraz informatu zuten, VII. Biltzarren prestaketaren lanak eta Kontseiluak Administrazioari proposatzen dituen labide gaiak. Gure Elkarteko bi lagun bertartu ziren, bata hautagai aldea bukatu duen talekoa eta bestea Batzorde berriko taldekoa informazio transferentzia errazteko

GHEE-CESPVREN BERRIAK

GIZARTE HEZKUNTZA ETA HERRITARTASUNA

Aurreko **maiatzaren 13an** **“Gizarte Hezkuntza eta Herritartasuna: ohiko praktika?”** jardunaldiak izan ziren, eta egun horretan giro ona eta baikortasuna espero zen. Bilboko **Deustoko unibertsitate** eta **Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkartegoa**ren (GHEE) esku-tik aurrera eraman zen, eta Deustoko unibertsitate horretan bertan izan ziren.

Ekitaldian azpimarratu ziren elkartasunean eta era bateratuan lan egiteko funtsezkoak diren oinarriak. Aurkezpenean parte hartu zuten hiru pertsonak – Natxo Martínez, Gizarte Hezkuntzako Graduko Koordinatzailea, Josu Solabarrieta, Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko Dekanoa, eta Roberto Vidal, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko Presidentea – aldarrikatu zuten **gizarte oso batenganako lan egitea, baztertuta egon daitekeen talde bakan barik**; modu honetan, aparatuko genituzkeen itzalpean dauden pertsonak, “ahots gabekoak”, eta hoi-en alde egin, duintasuna merezi duten ondokoak kontuan hartu, gizartean bere lekua dutelako, eskubideak dituzten pertsonak baitira. Modu berean, herritartasuna sustatzeko argi utzi zen zein garrantzitsua den **pertsonen arteko laguntasuna, sarea** jostea eta haztea, honela besteekin lan egiteko erraztuko luke eta hiritartasuna familia handi bat balitz bezala bistan izango al genuke. Proposamenak esandakoak direla, ezinbestekoa ikusten zuten inguruan dagoen egoeraz jabetzea, aukerak ikustea, inplikatzeta, hobera jotzeko konpromezua hartzea, planteatzen diren **printzipioak gogoan izatea** eta irizpideak aurrean izanda lanean bere **erabakiak hartzea**. Gainera, oso egokia deritzote gizarte hezitzaileek beraien lekua topatzeari, finkatzeari, **bere lekua den hori bilatzeari**; bakoitzak ikusi behar du zer eremutan bere ahaleginak eskaini eta bertan bere harri koskorra eman, adibide gisa, oraingo jardunaldi gai-ardatza, hiritartasuna eraikitzea, eskaintzen eta bizitzen ahalik eta jende gehien gupil berean, **amankomunetako espazioetan** parte hartuz batera.

Jardunaldietako gaiaren inguruan hain aditua den Toni Puigek honako mezu hauxe helarazi zigun: gizarte hezitzailearen paperak balio ikaragarria duela gizartean **gizalegea** (hiritartasuna sustatzeko oinarria) eratzeko eta hedatzeko, baita gizarte hezitzaileak **amankomuneko espazio osasuntsuak** eta **sortzaileak** abian jartzeko ere giltza direlako. Bestetik, Puigek nabarmendu zuen gizarte hezitzaileak lagungarriak direla oso kalean **parte hartzeko diren mugimenduak** eratzten jarraitzen errazteko, txertatze sozialako helburuarekin edo aldarrikatzeko xedeaz, eta gehiago ere, Puigek gainontzen du mugimendu hauek onuragarriak direla oso beharrezkoak diren **baloreak** goratzeko eta barneratzeko bidean.

Jardunaldian zehar, zenbait **elkarte sozialak** euren **begibista praktikoa** elkarbanatu zuten, konkretuki **CEAR, Giltzarri** eta **Zubietxe**, eta gainean utzi zituzten horren lagungarri izan zitekeen mamia eta gakoak.

Azkenik, nabarmentzea ez bakarrik Gizarte Hezkuntzako **Graduko gizarte hezitzaile eta maisu taldeak** lehendik egindako lan prozesu guztia baizik eta baita euren **ikasleak**, eredu izateagatik, **ekimenean parte hartu izanagatik**. Ikasle batzuek jardunaldira gerturatu zirenen harrera eman ez ezik, norberarentzat hiritartasunaren parte hartzearekin lotura zuzena duen hitzak edo objektu bat ere ekarri dute eta besteei erakutsi, beraien ideia pertsonala, honela elkarbanatuz.

Dena dela, gogoratu dezagun hiritartasunaren parte hartzearen inguruan hausnartzea ez dela hemen bukatzen, hurrengo urtean, **Gizarte Hezkuntzako VIIen Kongresua** Sevillan izango da eta, **ardatz gaia honen parean** joango da, **gizarte hezitzaileen lanbidea gizartea eraldatzeko ezinbestekoa den ideiarri utsiz**.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

UNIBERTSITATEKO TITULUAK

Titulu ofizialak izenekoak Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruari (EGMHE) egokituta daude. Hiru ziklok osatzen dituzte: Gradua, Masterra eta Doktoretza. Bai Gradu titulua bai Masterrekoa honako jakintzaren adarretara lotuta egongo dira: Arteak eta Giza Zientziak, Zientziak, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura. Gizarte Hezkuntzaren kasuan, Gizarte eta Lege Zientziak izenekoan artean kokatzen gairela esan genezake.

Lehenengo zikloak (GRADUA) 240 ECTS kreditu ditu, lau ikasturtetan banatuta. Behin hori gaindituta, bigarren zikloa (**MASTERRA**) egin ahalko da. Honek 60 eta 120 kreditu bitarteko iraupena izango du ECTS ikasturte batean edo bitan banatuta. Hori guztia egungo arautzeari jarraituta; izan ere, bi urte barru aldatu egin daiteke; ikus [Real Decreto 43/2015. BOE 3 de febrero de 2015.](http://www.boe.es/boe/1995/03/03/BOE-3-2015.html)

Master ikasketa ofizialen helburu nagusia ikaslearen espezializazioa lortzea da, prestakuntza akademiko, lanbidekoa edo ikerketa arlokoari dagokionean. Hori Master titulua lortuta burutuko da eta baliozkoa izango da Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruko herrialde guztietan. Behin master ofizialaren lorpena gaindituta, hirugarren zikloari (DOKTORETZA) ekin ahalko zaio.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eskainitako ondorengo esteka honetan (2015) espainiar unibertsitateek eskainitako titulazio ofizialak zein diren kontsulta daiteke: <http://www.universidad.es/titulaciones>

Titulazio ez-ofizialak ere badira, hau da, unibertsitate batzuek, publiko edo pribatuek, ikasketa ez-ofizialak ematea erabakitzen du. Horien gainean honako hau esan genezake:

Berezko Masterra: Ikasketa horiek ematen dituzten unibertsitatearen beraren arau eta kalitate kontrolak gainditzeak ematen duen bermetik dator ofizialtasuna. Hauen asmoa lan eta gizarte eskaerei erantzuna emango dien prestakuntza mota bat eskaintzea da; horrela, prestakuntza malguago eta dibertsifikatuagotzat hartzen da, espezializazio profesionala edo akademikoa eskaintzen duena, edo eza-gupenak eguneratzeko balio dezakeena.

Unibertsitate aditua: Lehenengo eta bigarren zikloko unibertsitate ikasle tituludunei –sartzeko ezarri diren gutxienezko betekizunak betetzen dituztenei (unibertsitate aditu berezko tituluaren espezialitatearekin zuzeneko lotura izatea)- zuzendutako tituluak dira. Era guztietako gaiak lantzen dituzte, eta Aditu programa baten iraupena hilabete batzuetatik urtebeterakoa izan daiteke. Hain zuzen ere, kreditu sistema berriaren arabera, 20 ECTS (gutxienez) eta 40 ECTS (gehienez) artean kokatzen da.

Unibertsitate espezialista: Unibertsitate aditu tituluaren antzekoa da, baina egia da unibertsitate batzuetan desberdindu egiten dituztela biak, antzeko titulazioak eskaintzeko; gaien aldetik hurbilekoak dira baina sartzeko eskakizunetan honetan gutxiago eskatzen dute. Beraz, errazagoa da titulu honetan sartzea. Titulu hauek eskaintzen dituzten unibertsitateek ezarritako betekizunak betetzea eskatzen da soilik. Hauen iraupena gutxienez 200 ordukoa eta gehienez 400 ordukoa da.

Amaitzeko, eta ondorio gisa, berezko tituluaren eta ofizialen artean bereizteko aukera adieraziko genuke. Titulu ofizialei dagokienez, Gradu ofizialak, Unibertsitate Master Ofizialak eta Doktoretza aipa daitezke. Berezko tituluaren artean Gradu ez ofiziala, Magister edo Master ez ofiziala, Master Espezialista eta Master Aditua. Ez dago doktoretza ez ofizialik.

Unibertsitatekoak ez diren erakundeek emandako antzeko izendapenak dituzten ikastaroek bertako ikasleek eta aldi baterako kontratatzaileek iritzitako balioa izango dute; kalitate handiko ikastaroak daude.

INTERESGARRIKOAK

Modelo de Atención Centrada en la Persona. Cuadernos Prácticos / Pertsonarengan Oinarritutako Arretaeredua. Koaderno Praktikoak.

Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco; Fundación Matia, Martínez, T. et al. 2014. Refs. 197992- 197998 y 198000-198003.

Argitaratutako 10 koadernoetara bideratzen duen esteka.

**Vencer las resistencias en el progreso hacia la Atención Centrada en la Persona. Estrategias y técnicas.**

Serie: Docs. Zona Calidad n. 2, Oviedo, Consejería de Bienestar Social y Vi-



RES está preparando el número 21 con el título Educación Social y Género.

Se publicará en www.eduso.net/res/

**Programa de tratamiento educativo y terapéutico por maltrato familiar ascendente.**

Madrid, Agencia de la Comunidad de Madrid para la Reeducación y Reinserción del Menor Infractor, 2013.

**Portal Internet Multiprevención**

Cruz Roja Espacio Pre20

Pre20 se presenta como un multiportal de prevención, que tiene el objetivo clave de trabajar la promoción de hábitos y estrategias de vida saludable. Se trata de incorporar una visión proactiva a la intervención preventiva de Cruz Roja. Esta nueva estrategia se implementa desde un análisis de la realidad local que retroalimenta la intervención, apoyándose en la información, la participación y la formación como líneas básicas para trabajar la prevención



Bizkaiko Foru Aldundiaren 70/2015 FORU DEKRETUA, maiatzaren 19koa, Gizarte Ekintza Saileko gurasoen aurkako indarkerian espezializatutako familia barruko eskuhartze programa arautzen duena.

**Centro Documental de AVAIM**

Hautzaro eta gazteriarekiko dokumentu eta baliabide zentrua

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.